



Abokatutzan sartzeko azterketarako 2024ko deialdia

ABOKATUTZAN ARITZEKO GAITASUN PROFESIONALA EBALUATZEKO PROBA. 2024KO DEIALDIA.

BEHIN BETIKO ERANTZUN TXANTILOIA

ONLINE MODALITATEA

OHARRA: Online modalitatea denez eta ausazko galde-erantzunak daudenez, txantiloia honetan, galdera-erantzunen eduki osoa jaso da, eta erantzun zuzena gorriz markatu.

A. ABOKATUTZAN ARITZEARI BURUZKO GAI KOMUNAK

1 – Carla abokatua da, eta parte hartzen ari da sektore publikoko kontratuen legediaren mendeko kontratazio-prozedura batean. Pleguan xedatutakoa betetzeko, sar al ditzake bere historia profesionalan bere zerbitzuak hartu dituzten bezeroen erreferentziak?

a) Ez, inoiz ez.

b) Bai, baldin eta bezeroek espresuki debekatu ez badute, konfidentzialtasun-eginbearra eta datu pertsonalak babesteko arauak betetzen badira, eta pertsona fisikoen intimitaterako eskubidea urratzen ez bada.

c) Bai, bezeroek espresuki debekatu arren, Carlak berak emandako zerbitzuak direlako.

d) Bakar-bakarrik bezeroek espresuki baimentzen badute zerbitzuak hartzen dituzten garaian.

2 – Carmen abokatua da, eta, bezero baten izenean, jardun profesionalaren ondoriozko erantzukizun zibileko akzio bat egikaritu nahi du, bere lankide Anaren aurka. Jakinarazi behar al dio Elkargoari?

a) Ez; izan ere, akzioa bere izenean sustatzen badu bakarrik dago behartuta akzioa baliatzeko asmoa Elkargoari jakinaraztera.

b) Ez; izan ere, akzioa baliatzeko asmoa Anari bakarrik jakinaraztera dago behartuta, eta ez dago Elkargoari jakinarazi beharrik.

c) Bai, behartuta dago akzioa baliatzeko asmoa Elkargoari jakinaraztera.

d) Ez; izan ere, akzio penala baliatzeko asmoa badu bakarrik dago behartuta Elkargoari jakinaraztera.

3 – Carlosek abokatu-zerbitzuak ematen ditu arkitekturako enpresa batean. Eman behar al dio bezeroari zerbitzuen faktura?

a) Bai, faktura eman beharko dio bezeroari, eta fakturak legezko betekizun guztiak bete beharko ditu eta zehatz-mehatz adierazi beharko ditu zerbitzu-sarien kontzeptuak eta gastuen zerrenda.

b) Ez; izan ere, sozietate profesionalak emandako zerbitzuak badira bakarrik eman behar da faktura.

c) Ez; izan ere, pertsona fisikoei emandako zerbitzuak badira bakarrik eman behar da faktura.

d) Ez; izan ere, abokatuek inoiz ez dute bezeroari faktura eman beharrik.

4. – Raulek, abokatu-titulu profesionala lortu ondoren, ez diharduen elkargokide gisa sartu nahi du Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuan. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Ez diharduen elkargokide gisa sartzeko, ez du izan behar zigor astunen ezarpenari loturiko aurrekari penalik.

b) Ez diharduen elkargokide gisa sartzeko, ez dihardutenentzako azterketa psikotekniko espezifiko bat gainditu behar du Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuan.

c) Ez diharduen elkargokide gisa sartzeko, alta eman behar du Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean.

d) Ez diharduen elkargokide gisa sartzeko, abokatutzan jarduteko gaikuntza ematen duen titulu profesionalaz gain, ez da bete behar bestelako eskakizun gehigarririk.

5 – Adierazi zer ondorio penal izango duen Blanca abokatuak baldin eta, prozesu judizial batean, bere egitekoetan eta bezeroari laguntzearen, lekuko faltsu bat aurkezten badu apropos.

a) Bat ere ez; izan ere, abokatuek beren egitekoetan lekuko faltsua apropos aurkeztea ez dago tipifikatuta delitu gisa Zigor Kodean, hargatik eragotzi gabe horren ondoriozko diziplina-erantzukizuna.

b) Justiziari oztopo egiteko delituarengatik kondena dezakete.

c) Lekukotzan egia esaten ez duen lekukoarentzat xedatutako zigor bera ezar diezaiokete, goiko erdian.

d) Lekukotzan egia esaten ez duen lekukoarentzat xedatutako zigor bera ezar diezaiokete, beheko erdian.

6 – Adrianek akzio penal batez baliatu nahi du, sekuela penagarri bat eragin dion arduragabekeria medikoa dela kausa. Horretarako, Marta abokatua bisitatu du. Martak, gaia aztertu ondoren, uste du ia segurtasun osoz ez dagoela erantzukizun penalik, eta bide zibilean erreklamatzeari proposatu dio. Adrian, ordea, tematu egin da kereila aurkeztean. Zer egin behar du Martak?

- a) Bezzeroaren nahia bete, nahiz eta uste osoa izan akzio penalak porrot egingo duela; hala ere, idatziz ohartaraziko dio arrakasta izateko aukerarik ez dagoela, eta, horrela, ez du erantzukizunik izango.
- b) Bezzeroaren nahia bete, defentsa-eskubidea gailentzen delako eta letraduak bezeroa konfiantza-irizpidean oinarrituta tratatu behar duelako, abokatutzan funtsezkoa baita.
- c) Abokatutzako jarduna ez da mandatu-kontratua; beraz, planteatutakoa bezain erabaki tekniko sinpleetarako, letraduak bere irizpidea inposa dezake, eta Adrianek baztertzen duen bide zibileko erreklamazioaz baliatu, bezzeroaren irizpidearen kontrakoa izan arren.
- d) Kereila aurkezteari uko egin diezaioke; izan ere, letradua ez dago behartuta enkargua onartzera, eta bezeroak inposatu nahi dituen eta irizpide profesional propioen aurka dauden instrukzioak bazter ditzake.

7 – Adierazi abokatu baten jokabide hauetatik zein den arau-hauste oso astuna:

- a) Elkargoari ez jakinaraztea egoitza profesionala aldatu dela.
- b) Fidatu zaion defentsa bertan behera uztea, bezeroari defentsa-gabezia eragiten badio.
- c) Mozkortzea, lanbideko jardunean eraginik badu.
- d) Kontrako alderdiaren abokatuarekiko komunikazioetan bezero propioa konprometitzea, prestigioa galarazten duten iruzkinak eginez.

8 – Adierazi inguruabar hauetako zeinengatik galduko den elkargokide-izaera.

- a) Edozein arau-hauste egiteagatik, automatikoki eta alde batera utzita zer zehapen ezartzen den.
- b) Nahitaezko kuota bi hiletan ez ordaintzeagatik.
- c) Elkargotik egozteko zehapena izateagatik, diziplina-espediente batean ebazpen irmo bidez hala erabakita.
- d) Diruzko isunaz zehatua izateagatik.

9 – Adierazi zer eskubide aitortzen duen 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak, abokatutzari dagokionez.

- a) Denek dute letradu baten defentsa eta laguntza izateko eskubidea.
- b) Abokatuak eskubidea du sortutako gastuak itzul dakizkion.
- c) Espainiarrek bakarrik dute eskubidea letraduaren defentsa eta laguntza izateko.
- d) Atzerritarrek beti izango dute letraduaren doako laguntza izateko eskubidea.

10 – Non dute jurisdikzioa justizia-auzitegi nagusiek?

- a) Dagokien autonomia-erkidegoko lurralde-esparruan.
- b) Dagokien probintziako lurralde-esparruan.
- c) Dagokien barrutiko lurralde-esparruan.
- d) Espainia osoan.

11 – Non dute egoitza administrazioarekiko auzien epaitegi zentralek?

- a) Sevillako hirian.
- b) Autonomia-erkidego guztietan egongo da egoitza bat
- c) Gobernuak legegintzaldi bakoitzean ezartzen duen tokian, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari entzun ondoren.
- d) **Madrilgo hirian.**

12 – Adierazi zein den erantzun zuzena Espainiako auzitegien eskumenari dagokionez:

- a) Espainiako auzitegiek eskumena deklina dezakete, baldin eta auziak Espainiarekiko loturarik badu eta auziarekin erlazionatutako estatueta auzitegiek eskumena deklinatu badute.
- b) **Esanbidezko edo isilbidezko sumisiorik izan ezean eta nahiz eta demandatuaren egoitza Espainian ez egon, Espainiako auzitegiak eskudunak izango dira kontratuz kanpoko obligazioen arloan, egitate kaltegarria Espainiako lurraldean izan bada.**
- c) Espainiako auzitegiak beti izango dira eskudunak ondorengotzen arloan, kausadunak egoitza Espainian badu, alde batera utzita non izan duen ohiko azken bizilekua edo non dauden ondasunak.
- d) Espainiako auzitegiak beti izango dira eskudunak, nahiz eta eskumena beste xedapen batzuen ondoriozkoa ez izan, baldin eta demandatua auzitegietan agertzen bada eta agerraldi horren helburua eskumena aurkaratzea bada.

13 – Huelvako Udaleko alkatearen dekretu bat aurkaratu da. Dekretu horretan irizpide orokorrak onartu dira udal horretan enplegua finkatzeko aparteko hautaketa-prozesuak arautzeko. Administrazioarekiko auzien epaitegian jarri dute errekurtsioa; hala ere, haren iritziz, lan-arloko jurisdikzioari dagokio, dekretu horrek langile lan-kontratudunentzako deialdi bat ezartzen duelako. Huelvako Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegiak eskuduntzat jotzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioa, legea baino beheragoko xedapen orokor bat aurkaratzen delako. Bi epaitegien arteko eskumen-gatazka negatiboa azaldu da. Nori dagokio ebaztea?

- a) **Auzitegi Goreneko sala berezi bati; hango presidentea izango da sala horren buru, eta bi magistratuk osatuko dute: gatazkan dagoen jurisdikzio-ordena bakoitzeko bat. Gobernu Salak urtero izendatuko ditu magistratuok.**
- b) Auzitegi Goreneko lehen salari, gatazkan dauden jurisdikzio-ordenek eragiten ez diotelako.
- c) Goragoko hurren organo erkideari, hau da, Huelvako Probintzia Auzitegiari.
- d) Goragoko hurren organo erkideari, hau da, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiari.

14 – Bezero batek abokatu batengana jo du, eta adierazi dio zerbitzuak kontratatatu nahi dituela, bere alde emandako laudo arbitral batetik eratorritako betearazpena dela eta. Hala ere, jakin nahi du noiz den beharrezkoa abokatuaren esku-hartzea laudo arbitral batetik eratorritako betearazpena egiteko. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Inoiz ez, gatazketarako mekanismo estrajudizial baten betearazpenetik datorrelako.
- b) Beti, alde batera utzita zein kopurutan agindu den betearazpena.
- c) Betearazpenerako kopurua 500.000 eurotik gorakoa bada bakarrik, eta ez da beharko esku-hartzerik hortik beherakoa bada.
- d) **Agindutako betearazpenerako kopurua 2.000 eurotik gorakoa den guztietan.**

15 – Arau baten testuaren babesean egindako egintzak, ordenamendu juridikoak debekatutako emaitza lortu nahi badute:

- a) Guztiz baliozkotzat joko dira eta ezin izango zaie eraso egin; izan ere, garrantzitsuena ez da helburua, arauaren testuak egintzari emandako babesa baizik.

- b) Lege-iruzurrean edo maulan betetakotzat joko dira; hala ere, inoiz ezin izango da aplikatu saihestu nahi izan den araua.
- c) Eskubide-abusuz betetakotzat joko dira.
- d) Lege-iruzurrean edo maulan betetakotzat joko dira eta ez dute eragotziko saihestu nahi zen araua aplikatu beharra.

16 – Jorgek jabetza intelektualaren eskubidea urratzearen ondoriozko akzio bat baliatu nahi du; horretarako, atariko eginbideetan, datuak lortzeko eskabide bat egin du, jakin nahi duelako nondik atera diren eta zer saretan banatu diren bere ustez jabetza intelektualaren bere eskubidea urratzen duten obrak. Abokatu bati egin dio kontsulta; izan ere, argitu nahi du nork ordaindu behar dituen eginbideetan esku hartu behar duten pertsonen eragindako gastuak. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Eginbideetan esku hartu behar duten pertsonen.
- b) Jorgek, atariko eginbideak berak eskatu dituelako, eta, eginbideak eskatzeaz batera, kauzioa eskaini behar duelako.
- c) Atariko eginbideak egitea erabakitzen duen organo judizialak.
- d) Jorgeri ohartarazi behar zaio ezen, 2024an araudi prozesalean egindako aldaketen ondoren, ezinezkoa dela atariko eginbideak eskatzea.

17 – Honela ebatziko da prozesuan azaldu den pronuntziamendu bereziko arazo intzidentala:

- a) Behar bezala berezita, behin betiko epaian.
- b) Probidentzia bidez.
- c) Auto bidez.
- d) Antolaketa-eginbide bidez.

18 – Laura abokatua da, eta bere bezeroaren izenean eta hura ordezkatzuz jarritako demanda bat baiesten duen epai bat jakinarazi diote. Hala ere, epaitza ez da argia; beraz, epaia argitzeko eskabidea egitea pentsatu du. Posible al da?

- a) Ez, auzitegiek ezin dituzte epaiaren kontzeptu ilunak argitu, epaiak aldaezinak izatearen ondorioz.
- b) Ez, autoak argitzeko bakarrik eska daitekeelako.
- c) Bai, eta ez dauka denbora-mugarik argitzeko eskatzeko.
- d) Bai, hurrengo bi egun balioduneko epean.

19 – Zer errekurso jar daiteke prejudizialitate penalaren ondorioz auzigai zibil bat etetea erabakitzen duen autoaren aurka?

- a) Ezin da errekurtsorik jarri.
- b) Apelazio-errekurtoa.
- c) Berraztertze-errekurtoa.
- d) Zuzeneko berrikuspen-errekurtoa.

20 – Zer hartuko da kontuan doako laguntza juridikoaren onuradun posibleek auzitan aritzeko baliabide nahikorik ez daukatela egiaztatzeko?

- a) Onuradun posiblearen errentak bakarrik.
- b) Eskatzailearen ondare-ondasunak bakarrik.
- c) Eskatzailearen errentak eta bestelako ondare-ondasunak, eta ez da kontuan hartu behar bestelako inguruabar gehigarriak.

d) Eskatzailearen errentak eta bestelako ondare-ondasunak edo inguruabarrak, eta, horietaz gain, benetako gaitasun ekonomikoa agerian jartzen duten kanpoko zantzuak.

21 – Martini doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortu zaio; prozesua amaitzen duen ebazpenean, kostuak ordaintzera kondenatu dute. Kontsulta egin dio laguntza eman zion abokatuari: ea ordaintzera behartuta dagoen. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Bai, berehala ordaindu behar ditu; izan ere, doako laguntza juridikoa izateko eskubideak ez du inoiz barnean hartzen kostuak ordaindu beharra.
- b) Ez, inoiz ez, ebazpena ematen den unean onura hori duelako, alde batera utzita zer egoera izango duen etorkizunean.
- c) Bai, baina defentsan eragindakoak bakarrik.
- d) Behartuta dago defentsan eragindakoak eta kontrako alderdiarenak ordaintzera, baldin eta prozesua amaitu eta hurrengo hiru urteetan diru-egoerak hobera egiten badu.

22 – Jordi abokatua da, eta zehapen bat ezarri diote ofiziozko txandan emandako zerbitzuetan egin duen jarduketa bati loturiko arau-hauste astun baten ondorioz. Izango al du eraginik zehapen horrek Jordik ofiziozko txandan zerbitzuak ematen segitzeko?

- a) Ez; izan ere, diziplinazko espedienteak ez dauka zerikusirik zerbitzu horiek ematearekin.
- b) Bai; izan ere, ezarritako zehapenak berekin dakar, edonola ere, abokatua zerbitzu horietatik kanporatzea, gutxienez sei hilabete, eta urtebete baino gutxiago.
- c) Ez; izan ere, zehapenak arau-hauste oso astun baten ondorioz bakarrik ekarriko du kanporatzea.
- d) Bai; izan ere, ezarritako zehapenak berekin dakar, edonola ere, abokatua zerbitzu horietatik behin betiko kanporatzea.

23 – Deklarazio-prozesuetan, Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legearekin bat etorritik, lehen auzialdiko kostuak hauei ezarriko zaizkie:

- a) Bere uzi (pretentsio) guztiak errefusatu zaizkion alderdiari, salbu eta auzitegiak hautematen badu, eta hala arrazoitzen, kasuak egitezeko edo zuzenbideko zalantza handiak zituela.
- b) Deklarazio-prozesuetan, ezin zaio alderdi bati ere ezarri kosturik.
- c) Bere uzi guztiak errefusatu zaizkion alderdiari, eta auzitegiak ezin du arauan salbuespenik egin, kasuak egitezeko edo zuzenbideko zalantza handiak zituela hauteman eta arrazoituta ere.
- d) Edonola ere, deklarazio-prozesu bat denez, alderdietako bakoitzak berak eragindako kostuak ordainduko ditu, eta kostu komunak erdibana.

24 – Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bideratutako prozesu batean, ezar dakizkioke kostuak Fiskaltzari?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai; izan ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bakarrik ezar dakizkioke kostuak Fiskaltzari.
- c) Bai, baina Fiskaltzak prozesuan duen jarreraren aurkako epaia badago bakarrik.
- d) Bai, baina bakarrik ordaindu beharko du zenbatekoak ez badu gainditzen prozesu osoko zenbatekoaren herena.

25 – Kostu-tasazioa:

- a) Ezin da aurkaratu.
- b) Aurkara daiteke gehiegizkoa edo bidegabea izateagatik.
- c) Bakarrik aurkara daiteke barnean gastu bidegabeak izateagatik.
- d) Bakarrik aurkara daiteke barnean zerbitzu-sarien zenbatekoa gehiegizkoa izateagatik.

26 – Juana eta Fernando abokatuak dira eta bulego kolektibo bat jarri dute. Juanak bezero bat atenditu du Fernandoren laguntzarik gabe, eta lehen minuta egingo dio. Jaso behar al du minuta horretan bulego kolektibo bateko kidea dela?

- a) Ez, ez da beharrezkoa, nahikoa baita izen osoa jartzea.
- b) Bai. Bulego kolektibo bateko abokatukidea dela agerrarazi behar du minutan. Zerbitzu-sariak kolektiboari dagozkio, edozein dela ere adostu duten barne-banaketako araubidea.
- c) Inoiz ezin da agerrarazi minutan bulego kolektibo bateko kidea dela, Juanaren esku-hartzea pertsonala delako.
- d) Juanak berak erabaki dezake minutan bulego kolektiboa aipatu ala ez; izan ere, ez dago horretara behartuta abokatukide gabeko esku-hartzea izateagatik.

27 – Nola zehaztuko da abokatuaren zerbitzu-sarien zenbatekoa?

- a) Lege-mailako arau batek berariaz zehazten du zenbateko kontraprestazioa kobratzeko eskubidea duen abokatuak emandako zerbitzuetako bakoitzean.
- b) Abokatuak berak ezarriko du, inolako araurik bete beharrik gabe.
- c) Libreki adostuko dute bezeroaren eta abokatuaren artean, arau deontologikoak eta lehiari eta lehia desleialari buruzko arauak beteta.
- d) Bezeroak zehaztuko du libreki.

28 – Adierazi zer baldintza bete behar duten abokatuak lankidetzaren multiprofesionalaren araubidean elkartzeko bateraezinak ez diren beste profesional liberal batzuekin:

- a) Elkarrearen xedea zerbitzu bateratu jakin batzuk ematea izan dadila, beste lanbide batzuenekin osagarri diren zerbitzu juridiko espezifikoak barnean hartu beharra izanik.
- b) Elkarrearen xede bakarra abokatutzaren jardutea izan dadila, eta elkarre osatzen duten guztiak abokatuak izatea, kopuru-mugarik gabe.
- c) Elkarrearen xedea zerbitzu bateratu jakin batzuk ematea izan dadila, nahiz eta barnean zerbitzu juridikorik ez izan.
- d) Ez da posible abokatuak lankidetzaren multiprofesionalaren araubidean elkartzea bateraezinak ez diren beste profesional liberal batzuekin.

29 – Gatazkarik badago Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak onartutako arau deontologikoen eta elkargoetako estatutuen artean, zein gailenduko dira?

- a) Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak onartutako arau deontologikoak.
- b) Elkargoetako estatutuetan dauden arau deontologikoak.
- c) Lehenago onartu diren arauak gailenduko dira, *prior in tempore* irizpideari jarraikiz.
- d) Auzitegi Gorenak kasu zehatz bakoitzerako ezarritako arau deontologikoak, eta hara jo beharko da Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak onartutako arau deontologikoen eta elkargoetako estatutuen arteko gatazka-egoera bakoitzean.

30 – Lola abokatua da, eta, bezero batek eskatuta, auzigai bati buruzko balorazio profesionalak daukan txosten bat egin du. Jakinaraz diezaioke Lolak txosten horren edukia hirugarren bati?

- a) Bai, bezeroari jakinarazi beharrik izan gabe, Lolak jardun profesionalean egindako txostena delako eta haren gaineko eskubide guztiak dauzkalako.
- b) Bai, baina bezeroak berariaz baimentzen badu bakarrik.**
- c) Bai, baina bezeroak eskaera egiteko unean berariaz debekatzen ez badu bakarrik.
- d) Ez, inoiz ez, ezta bezeroak berariaz baimentzen badu ere.

31 – Andrea abokatua da, eta, alderdi demandatzaile gisa esku hartzen duen prozesu judizial batean, bezeroak proposatu dio kontrako alderdiko abokatuaren lekuko-deklarazioa eskatzea. Onartu behar al du eskaera hori, eta lekuko-deklarazioa eskatu?

- a) Bai, baina bakarrik uste badu froga-proposamenak lagun diezaiokeela bezeroari.
- b) Ez; izan ere, abokatua den aldetik, behartuta dago jarduketa horretan abstenitzera.**
- c) Bai; izan ere, bezeroaren jarraibideak bete behar ditu beti.
- d) Eskatzea eta ez eskatzea dauka, gaiaren inguruabar zehatzen arabera komenigarria denaren arabera.

32 – Adierazi betebeharrak hauetako zein dagokien elkargokide guztiei:

- a) Batzar orokorrari zerbitzu-sari profesionaletarako orientazio-irizpideak ezartzea proposatzea edo onartzea, kostu-tasazioa eta kontuen zina egiteko, eta behar denean horri buruzko aditu-txostenak egitea.
- b) Behar den koordinazioa ezartzea abokatuaren elkargoetako kontseilu autonomikoekin.
- c) Deialdia egitea dekanoen karguak betetzeko hauteskundeetarako.
- d) Dakien intrusismo-egintza edo legez kanpoko jarduerak oro salatzea Elkargoan.**

33 – Adierazi zehapen hauetako zein ezar dakioken abokatuari diziiplina-arau bat hausteagatik.

- a) Diruzko isuna.**
- b) Askatasun-gabetzea.
- c) Demeritua.
- d) Nahitaezko lekualdatzea.

34 – Noiz ezereztuko da elkargokidearen espediente pertsonaleko ohartarazpen-zehapenaren idatzoharra?

- a) Zehapena bete eta biharamunetik hasita, sei hilabete igarotzen direnean, elkargokideak berriz diziiplina-erantzukizuna dakarren beste ezer egin ez badu.**
- b) Elkargokideak erretiroa hartzen duenean; ordura arte ezin izango da ezereztu espediente pertsonaleko zehapenaren idatzoharra.
- c) Bost urte igarotzen direnean, elkargokideak berriz diziiplina-erantzukizuna dakarren beste ezer egin ez badu, ohartarazpena zehapenik astunena delako.
- d) Elkargokidearen espediente pertsonalean, ez da jasoko idatziz ohartarazpen-zehapenik; beraz, ez dago ezerezteko eperik.

35 – Zeini dagokio babes-errekurtsoaz arduratzeko eskumena?

- a) Auzitegi Gorenari.
- b) Konstituzio Auzitegiari.**
- c) Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salari.

d) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari.

36 – Zer ondorio dakar edozein egintzak, baldin eta egilearen asmoarengatik begi-bistan gaintitzen baditu eskubideren bat egikaritzeko muga arruntak, eta hirugarrenei kalte egiten badie?

a) Lege-iruzurrean edo maulan betetakotzat joko da.

b) Onustearen eskakizunekin bat etorritik egikaritutakotzat joko da.

c) **Dagokion kalte-ordaina eman beharra dakar, eta abusuak jarraitzea eragotziko duten administrazio-neurriak nahiz neurri judizialak hartu beharko dira.**

d) Zuzenbideko okertzat joko da nahitaez.

37 – Auzitegi zibil batek erabakia hartzen badu, ondore prejudizial hutsetarako, administrazioarekiko auzien ordenako auzitegiei esleitutako auzigai batez arduratzeko, zer ondore izango du?

a) Ondore guztiak izango ditu erabakia hartu den prozesutik kanpo.

b) **Ez du ondorerik izango erabakia hartu den prozesutik kanpo.**

c) Ondore prejudizialeterako, auzitegi zibilak ezin dira arduratu administrazioarekiko auzien ordenako auzitegiei esleitutako auzigaiez.

d) Ondore prejudizialeterako, ordena penaleko auzitegiei esleitutako auzigaiez bakarrik ardura daitezke auzitegi zibilak.

38 – Auzitegi batek uste badu ezen, epaitza eman ahal izateko, beharrezkoa dela Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari edo baliozkotasunari buruzko erabaki bat hartzea prozeduraren edozein fasetan, zer egin behar du?

a) **Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean planteatuko du arazo prejudiziala.**

b) Konstituzio Auzitegiaren aurrean planteatuko du arazo prejudiziala.

c) Gauza bakarra egin dezake: auzitegiak berak erabaki nola interpretatu Batasuneko Zuzenbidea.

d) Auzitegi Gorenari helaraziko dizkio jarduketak, gaiari buruzkoak ebatz ditzan.

39 – Arazo intzidental bat badago eta arazo hori, bere izaeragatik, oztopo bada judizioak izapide arruntan bidean aurrera jarrai dezan, zer ondorio prozesal ekarriko du?

a) Prozedurak aurrera egingo du, eta arazo intzidentalaren planteamendua alde batera utziko da.

b) Erabat baztertuko dira.

c) **Jardunen aribidea etengo da, harik eta haiek ebatzi arte.**

d) Dekretu bidez ebatziko da automatikoki.

40 – Bezero batek abokatuari azaldu dio bere asmoa dela doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ukatzen dion ebazpena aurkaratzea. Galdetu dio ea posible den aurkaratzea eta ea, horretarako, beharrezkoa den abokatuaren esku hartzea. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Ezin du aurkaratu; izan ere, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordearen ebazpenak ezin dira inoiz aurkaratu.

b) Ezin du aurkaratu; izan ere, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea errebokatzen duen ebazpena bakarrik aurkara daiteke.

c) Aurkaratu egin dezake, eta, horretarako, nahitaezkoa da abokatuak esku hartzea.

d) **Aurkaratu egin dezake, eta, horretarako, ez da nahitaezkoa abokatuak esku hartzea.**

41 – Adierazi zer ondorio dagoen elkargokide batek eragozpen bat badauka, abokatu gisa gomendatu zaion defentsa- eta aholkularitza-eginkizuna betetzea galarazten diona, eta horrek abokatutzan jarduteko ezintasuna zehazten badu:

- a) Elkargotik kanporatuko dute.
- b) **Elkargokidea ez diharduenaren egoerara pasatuko da automatikoki.**
- c) Nahitaezko erretiroa ekarriko du.
- d) Ez du ondoriorik izango elkargokidetzaren ondorioetarako.

42 – Adierazi adierazpen hauetako zein den zuzena, eskumen-gatazkei dagokienez:

- a) Jurisdikzio-ordena zibilak lehentasuna izango du beti. Jurisdikzio-ordena horretako organoei ezin planteatuko die eskumen-gatazkarik ezein epaile edo auzitegik.
- b) Fiskaltzak bakarrik planteatzen ditzake eskumen-gatazka positiboak.
- c) **Jurisdikzio-ordena penalak lehentasuna izango du beti. Jurisdikzio-ordena horretako organoei ezin planteatuko die eskumen-gatazkarik ezein epaile edo auzitegik.**
- d) Eskumen-gatazka negatiboak baino ezin dira izan. Ez dago eskumen-gatazka positiborik.

43 – Zeinek ebatziko ditu jurisdikzio-ordena bereko epaitegien eta auzitegien arteko eskumen-arazoak?

- a) Konstituzio Auzitegiak.
- b) Beheragoko hurren organo erkideak.
- c) **Goragoko hurren organo erkideak.**
- d) Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioak.

44 – Interes-gatazka bat sortzen denean bi bezeroren artean, nola jardungo du abokatuak:

- a) Norentzat jardun aukeratu beharko du.
- b) Bientzat jarduten jarraitu ahal izango du, baina beharrezko diren prekaizio-neurriak hartu beharko ditu.
- c) **Bi bezeroentzat jarduteari utzi beharko dio, non eta biek berariazko baimen idatzia ematen ez dioten haietako baten defentsan jardun dezan.**
- d) Bi bezeroentzat jarduteari utzi beharko dio, non eta haietako batek berariazko eskaera idatzia egiten ez dion bere defentsarekin jarrai dezan eskatuz.

45 – Bezero batek abokatu bati eskatu dio zerbitzuak emateko auzigai jakin baten inguruan. Nolanahi ere, elkarriketa amaituta, abokatua ohartu da auzigaia lehendik ezagutzen duela, lehenagoko bezero baten beste auzigai batzuen harira, eta informazio horrek mesede egin diezaiokeela bezero berriari, lehenagoko haren kaltetan. Zer egin behar du?

- a) **Ezin izango du bezero berriarentzat jardun.**
- b) Dakienaren berri eman behar dio bezero berriari, letradu baten laguntza hautatzeko erabakian eragina izan dezan.
- c) Bezero berriari letradu-laguntza ematen jarrai dezake; izan ere, informazioa esanguratsua izango litzateke, baldin eta egungo bezero bati eragingo balio, eta ez lehenagoko bezero bati.
- d) Abokatuen Elkargoari jakinarazi behar dio dakien informazioa, eta bezero berriari letradu-laguntza ematen jarraitu.

46 – Iñigo diharduen elkargokide egin zen, 2023ko maiatzean. 2024ko ekainean, abokatu gisa eskaintzen dituen zerbitzuen publizitatea egitea erabaki zuen, bezeroak erakartzeko; horretarako argitaratu beharreko iragarkietan, eslogan hau erabili zuen: «% 100ean bermatzen dut nire bezeroen interesen aldeko ebazpen judiziala». Zilegi al du halako publizitatea egitea?

- a) Bai, baldin eta betetzen badu emaitza hori lortzeko promesa.
- b) Bai, edozein dela ere lortzen duen emaitza. Izan ere, ahalmena du egokien iruditzen zaion moduan iragartzeko eskaintzen dituen zerbitzuak.
- c) Ez, beharrezkoa baitu bost urte ematea elkargokide gisa, bere zerbitzuen publizitatea egiteko.
- d) Ez, publizitateak ezin baitu agindu abokatuaren jardueraren mende soilik ez dauden emaitzak lortuko direnik.**

47 – Nork dauka abokatuen gaineko diziiplina-ahala?

- a) Arau-haustea egin den tokiko instrukzio-epaileak.
- b) Arau-haustea egin den lurralde-eremuko abokatu-elkargoek, beren estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.**
- c) Abokatuen elkargo guztiek; batera jardungo dute diziiplina-espediente bakoitzean.
- d) Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak, nahiz eta arau-hauslea ez izan kontseilu horretako kide, ezta elkargo eta kontseilu autonomikoetako gobernu-batzordeetako kide ere.

48 – Gabriela abokatua da, eta egoitza profesionala aldatu du. Nolanahi ere, ahaztu egin zaio aldaketa hori jakinaraztea Elkargoari. Ba al dauka garrantzirik jakinarazpen hori ez egiteak?

- a) Ez; izan ere, helbide pertsonalaren aldaketa bakarrik jakinarazi behar zaio Elkargoari.
- b) Ez, ez baita inola ere nahitaezkoa helbideari buruzko inguruabarrak Elkargoari jakinaraztea.
- c) Bai, arau-hauste arina da egoitza profesionalaren aldaketa ez jakinaraztea Elkargoari.**
- d) Bai, arau-hauste oso astuna da egoitza profesionalaren aldaketa ez jakinaraztea Elkargoari.

49 – Zer jurisdikzio-ordena arduratzen da, berez dagozkion gaiez gainera, beste jurisdikzio-ordena bati esleitu gabeko gaiez?

- a) Jurisdikzio zibila.**
- b) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.
- c) Lan-arloko jurisdikzioa.
- d) Jurisdikzio penala.

50 – Adierazi printzipio eta balio hauetatik zein den abokatutzaren jardunaren printzipio gidaria eta balio gorena:

- a) Integritatea.**
- b) Pluraltasun politikoa.
- c) Justizia.
- d) Berdintasuna

Erreserbako galderak

1 – Non jardun dezakete elkargo bateko kide direnek?

- a) Elkargoaren lurralde-eremuan baino ez.
- b) Mundu osoan.
- c) Estatuaren lurralde osoan.
- d) Elkargoak egoitza non duen, toki horretako autonomia-erkidegoaren eremuan baino ez.

2 – Zer baldintza bete behar da abokatutzatik kanporatutako profesionalak birgaitzeko?

- a) Bost urteko epea igarotzea, kanporatze-zehapena betearazi zenetik, eta elkargo bakoitzak deontologia profesionalaren arloan oro har ezartzen dituen prestakuntza-jarduerak gainditu izana egiaztatzea, bai eta profesionalak duintasunik gabe eta mespretxuz ez jardun izana balio eta betebeharrak profesional eta deontologikoen aurka.
- b) Bost urteko epea igarotzea soilik; epe hori igarotakoan, automatikoki birgaituko da profesionala.
- c) Ezin da birgaitu abokatutzatik kanporatutako profesionala.
- d) Ezin da kanporatu profesionalik abokatutzatik.

3 – Abokatuak noiz arte gorde behar du sekretu profesionala?

- a) Automatikoki azkentzen da bezeroari zerbitzuak emateari uzten dionean.
- b) Indarrean jarraitzen du, baita bezeroari zerbitzuak emateari utzi ondoren ere, denbora-mugarik gabe.
- c) Indarrean jarraitzen du, baita bezeroari zerbitzuak emateari utzi ondoren ere, urtebeteko epean, zerbitzuak eten zirenetik hasita.
- d) Bezeroari zerbitzuak emateari utzi eta bi urte igarotakoan azkentzen da.

4 – Demandatutako bezero batek abokatuari planteatu dio aukera duela demandari amore emateko, erantzuteko izapidea bete aurretik. Galdetzen dio ea, hala eginez gero, kostuak ezarriko zaizkion. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Ez da bidezkoa kostuak ezartzea, salbu eta auzitegiak, behar bezala arrazoituz, demanduari fede gaiztoa hautematen dienean.
- b) Kostuak demanduari ezarriko zaizkio beti, prozesua hasita baitago.
- c) Kostuak ez dira ezarriko demandari erantzun aurretik amore ematen diolako, eta auzitegiak ezin du inola ere kosturik ezarri.
- d) Kostuak alderdi demandatzaileari ezarriko zaizkio nahitaez, demandatuak amore eman baitu.

5 – Epai bat argitzeko eskaera aurkeztu duzu. Nola eragiten dio eskaera horrek argitzeko eskatu duzun epaiaren aurkako errekursoaren epeari?

- a) Eten egiten da, epaia argitzeko eskaera egin zenetik hasita. Errekurtsoaren epea zenbatzen hasiko da, pronuntziamenturik eza aitortzen edo ukatzen eta epaia konpontzea erabakitzen edo ukatzen duen autoa edo dekretua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.
- b) Ez da eteten, eta aurrera jarraitzen du, argitzeko eskaera gorabehera.
- c) Eten egiten da, epaia argitzeko eskatzen denetik hasita. Eskaera aurkeztu eta bost egun igarotakoan hasiko da zenbatzen.
- d) Ezin da eskatu errekurtsua jar dakioken epai bat argitzeko; desadostasuna dagokion errekurtsoren bidez bideratu behar da.

6 – Adierazi zer konstituzio-manuk ematen duen babes judizial eraginkorrerako eskubidea:

- a) Batek ere ez. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea lege-konfigurazioko eskubide bat da, eta ez dago jasota Espainiako Konstituzioan.
- b) Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua.
- c) **Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua.**
- d) Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua.

B. GAI ESPEZIFIKOAK

ZUZENBIDE ZIBILEKO ETA MERKATARITZA ZUZENBIDEKO ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1 – Elisa Manuelen abokatua da, eta, epe prozesal baten preklusioa saihesteko, hitzezko judizio baterako idazkia aurkeztu du prozeduraren ardura duen barruti judizialeko guardiako epaitegian, 14:59an. Balioduna al da Elisak aurkeztutako idazkia?

a) Bai; izan ere, idazkien eta dokumentuen aurkezpena, forma edozein izanda, epean egin behar baldin bada, dela prozesal dela substantibo, epearen muga-egunaren hurrengo egun baliodunaren hamabostak arte egin ahal izango da guardiako epaitegian.

b) Bai; izan ere, idazkien eta dokumentuen aurkezpena, forma edozein izanda, epean egin behar baldin bada, dela prozesal dela substantibo, epearen muga-egunaren hurrengo egun baliodunaren hamarrek arte egin ahal izango da guardiako epaitegian.

c) Bai; izan ere, idazkien eta dokumentuen aurkezpena, forma edozein izanda, epean egin behar baldin bada, dela prozesal dela substantibo, epearen muga-egunaren hurrengo egun baliodunaren zortziak arte egin ahal izango da guardiako epaitegian.

d) Ez; izan ere, auzitegi zibilen aurrean egindako jardunetan ez da onartuko idazkiak aurkeztea guardia-zerbitzua ematen duen epaitegian.

2 – Gironako Lehen Auzialdiko 5. Epaitegia exequatur-prozesu batez arduratzen ari da, Estatu Batuetako organo judizial batek emandako ebazpen judizial bat aitortzeko. Zer gertatuko da exequatur-demanda izapidetzeko onartzen bada?

a) Justizia Administrazioaren letraduak demanda onartzeko dekretu bat emango du, eta alderdi demandatuari helaraziko dio demanda, haren aurka egin dezan hamar eguneko epean.

b) Justizia Administrazioaren letraduak demanda onartzeko dekretu bat emango du, eta alderdi demandatuari helaraziko dio demanda, haren aurka egin dezan hogeit hamar eguneko epean.

c) Justizia Administrazioaren letraduak demanda onartzeko dekretu bat emango du, eta alderdi demandatuari helaraziko dio demanda, haren aurka egin dezan hogeita hamar eguneko epean.

d) Justizia Administrazioaren letraduak demanda onartzeko dekretu bat emango du, eta alderdi demandatuari helaraziko dio demanda, haren aurka egin dezan hilabeteko epean.

3 – Elenak "apud acta" ahalordea eman dio bere prokuradore Itziarri, Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean agerraldi pertsonala eginez. Nahitaezkoa al da ahalorde hori inskribatzea?

a) Ez, ez da nahitaezkoa emandako ahalordea inskribatzea.

b) Bai, inskripzioa egin behar da, Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioaren mendeko Ahalordetze Judizialen Erregistro Elektronikoa.

c) Bai, inskripzioa egin behar da, Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioaren mendeko Merkataritza Erregistroan.

d) Bai, inskripzioa egin behar da, Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioaren mendeko Erregistro Zibilean.

4 – Florak posturagile gisa parte hartu nahi du ondasun higiezin baten enkante elektronikoa judizial batean. Zenbat diru jarri beharko du enkantean parte hartzeko?

a) Enkantean parte hartzeko, enkantearen xede den ondasunari eman zaion balioaren ehuneko 5 kontsignatu beharko du aldez aurretik.

b) Enkantean parte hartzeko, enkantearen xede den ondasunari eman zaion balioaren ehuneko 3 kontsignatu beharko du aldez aurretik.

- c) Enkantean parte hartzeko, enkantearen xede den ondasunari eman zaion balioaren ehuneko 10 kontsignatu beharko du aldez aurretik.
- d) Enkantean parte hartzeko, enkantearen xede den ondasunari eman zaion balioaren ehuneko 20 kontsignatu beharko du aldez aurretik.

5 – Felisak mandatu-kontratu bat eman du Borjaren alde, ondasun higigarri bat eros dezan. Borjak, emandako mandatuaren baldintzak gaindituz, Felisak emandako baldintzak baino baldintza hobeagoetan eskuratu du ondasuna. Baliozkoa al da Borjak egindako egintza?

- a) Ez; izan ere, mandatuaren mugak gainditu dituenek, erabat deuseza da.
- b) Ez, beharrezkoa baitzen notario edo merkataritzako erregistratzailearen aurrean egiletsitako eskritura publikoa, mandatua gainditzeko zuen horri baimena emango ziona.
- c) Ez; izan ere, organo judizialek jo behar du, mandatua gainditzeko duena baimentzera.
- d) Bai, ez baita ulertuko mandatuaren mugak gainditu direnik, baldin eta mandatu hori bete bada, mandatugileak agindutako moduan baino, horrentzat onuragarriagoa den moduan.

6 – Anselmok bahi-eskubidea eratu nahi du bere ondasunetako baten gainean, Josefinarekin duen zorra (7.500 €) bermatzeko. Ondasun hauetatik, zein izan daiteke bahiaren objektu?

- a) Anselmok Benidormen duen apartamentua.
- b) Anselmok erosi berri duen auto berria.
- c) Anselmorekin bizi den katu persiarra.
- d) Anselmok amaren jabetzako etxebizitzaren gainean duen gozamina.

7 – Almendralejoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1. Epaitegiak erabaki du Gerardo lekukoaren froga gauzatzea, judizio arrunt batean; Gerardo A Coruñan bizi da. Deklaratu al dezake lekukoak bideokonferentzia bidez?

- a) Deklarazioa presentzia telematikoaren bidez egingo da lehentasunez, bulego judizialek horretarako behar diren baliabide teknikoak badituzte.
- b) Deklarazioa aurrez aurre egingo da lehentasunez, eta, salbuespenezko egoeretan soilik eta bakarrik, presentzia telematikoaren bidez, bulego judizialek horretarako behar diren baliabide teknikoak badituzte.
- c) Deklarazioa aurrez aurre egin beharko da nahitaez, eta salbuespenezko egoeretan soilik eta bakarrik, presentzia telematikoaren bidez, bulego judizialek horretarako behar diren baliabide teknikoak badituzte.
- d) Lekukoaren deklarazioa ezin da inola ere bideokonferentzia bidez egin.

8 – Maria Jose Judithen abokatua da, eta ezkontza-deuseztasuneko demanda bat jarri nahi du Jose Carlosen aurka, zeina ikerketapean baitago genero-indarkeriako delitu batengatik. Zer organo judizialean aurkeztu beharko du demanda?

- a) Lehen auzialdiko epaitegia.
- b) Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia.
- c) Instrukzioko epaitegia.
- d) Adingabeen epaitegia.

9 – Charok, hiltzeko arriskuan egonik, Pamelarekin ezkondu nahi du. Beharrezkoa al da baldintzaren bat betetzea, hiltzeko arriskua dagoen kasu horretan ezkontzeko?

- a) Heriotza-arriskua dagoen kasuan ezkontza egiteko, ezkontzako akta edo espedienteak izapidetu behar da, aurretiaz, eta ezkontza egitean, adin nagusiko bi lekuko egon behar dira bertan.
- b) Heriotza-arriskua dagoen kasuan ezkontza egiteko, ez da beharrezkoa aurretik ezkontzako akta edo espedienteak izapidetzea; ezkontza egitean, ordea, adin nagusiko hiru lekuko egon behar dira bertan.
- c) Heriotza-arriskua dagoen kasuan ezkontza egiteko, ezkontzako akta edo espedienteak izapidetu behar da, aurretiaz, eta ezkontza egitean, adin nagusiko hiru lekuko egon behar dira bertan.
- d) Heriotza-arriskua dagoen kasuan ezkontza egiteko, ez da beharrezkoa aurretik ezkontzako akta edo espedienteak izapidetzea; ezkontza egitean, ordea, adin nagusiko bi lekuko egon behar dira bertan.

10 – Johann alemaniarra da, eta Düsseldorf (Alemanian) bizi da. Europako prozedura monitorio europar bat jarri du Nerearen aurka, Iruñeko Lehen Auzialdiko Epaitegian. Zer ebazpen mota eman behar du Justizia Administrazioaren letratuak, Europako monitorioaren hasierako eskaera izapidetzea onartzeko?

- a) Dekretua.
- b) Antolaketa-eginbidea.
- c) Jasotze-eginbidea.
- d) Probidentzia.

11 – Gemma eraikuntza-produktuak merkaturatzen dituen enpresa bateko administratzailea da. Enpresa horrek egin dituen zenbait egintzak berekin ekarri dute produkzioa, banaketa edo garapen teknikoa mugatzea, enpresei edo kontsumitzaileei zuzituz ez dagoen kaltea eraginda. Baliozkoa al da enpresa horrek egindakoa?

- a) Ez, nagusitasunezko egoeraz abusatzea baita.
- b) Ez, jabetza intelektualaren printzipioen aurkako praktika baita.
- c) Ez, kalte egiten baitie rebus sic stantibus klausularen printzipio orokorrei.
- d) Bai, ez baita Espainiako ordenamendu juridikoaren aurkako.

12 – Esperanza Guillermoren abokatua da, eta eskatu nahi du Almudena lekukoak bideokonferentzia bidez deklaratu dezala. Ba al dago eskaera hori egiteko eperik?

- a) Bideokonferentzia-bitartekoak behar besteko aurrerapenarekin eskatu beharko dira, eta, nolanahi ere, dagokion jardunerako adierazitako eguna baino hiru egun lehenago.
- b) Bideokonferentzia-bitartekoak behar besteko aurrerapenarekin eskatu beharko dira, eta, nolanahi ere, dagokion jardunerako adierazitako eguna baino bost egun lehenago.
- c) Bideokonferentzia-bitartekoak behar besteko aurrerapenarekin eskatu beharko dira, eta, nolanahi ere, dagokion jardunerako adierazitako eguna baino hamar egun lehenago.
- d) Bideokonferentzia-bitartekoak behar besteko aurrerapenarekin eskatu beharko dira, eta, nolanahi ere, dagokion jardunerako adierazitako eguna baino hogeita egun lehenago.

13 – Elaia Julenen abokatua da, eta eskatu nahi du bere bezeroak Enekoren aurka dituen prozesu zibilak metatzeko. Zer organo judizialean eskatu behar du metaketa?

- a) Prozesurik antzinakoenaz arduratzen den auzitegiari eskatuko zaio beti; hari metatuko zaizkio prozedurarik berrienak.
- b) Prozesurik berrienaz arduratzen den auzitegiari eskatuko zaio beti; hari metatuko zaizkio prozesurik antzinakoenak.

- c) Karrera judizialaren eskalafoian titularrik antzinakoena duen prozesuaz arduratzen den auzitegiari eskatuko zaio beti.
- d) Zenbateko txikieneko prozesuaz arduratzen den auzitegiari eskatuko zaio beti; hari metatuko zaizkio zenbateko handieneko prozesuak.

14 – Rita Leongo Lehen Auzialdiko Epaitegiko magistratua da, eta ahozko epaia eman nahi du prozedura arrunt batean. Zer epe du ahozko epaia emateko?

- a) Bost egun, epaiketa edo ikustaldia egiten denetik hasita.
- b) Hamar egun, epaiketa edo ikustaldia egiten denetik hasita.
- c) Hogeia egun, epaiketa edo ikustaldia egiten denetik hasita.
- d) Ez da inoiz ere ahozko epairik emango prozesu zibiletan.

15 – Alejandro higiezin baten jabea da, eta Jessicari alokatu dio, etxebizitza gisa erabil dezan. Jessicak hilabete batzuk ordaindu gabe daramatzanez, Alejandrok utzarazpen-demanda jarri du; ondoren, Jessicari ordaintze-errekerimendua egin zaio, eta orduan, bai, ordaindu egin ditu zor zituen zenbatekoak. Zer ebazpen mota eman behar da prozedurari amaiera emateko?

- a) Justizia Administrazioaren letraduak horretarako emandako dekretu baten bidez amaituko da.
- b) Epailleak edo magistratuak horretarako emandako probidentzia baten bidez amaituko da.
- c) Justizia Administrazioaren letraduak horretarako emandako antolaketa-eginbide baten bidez amaituko da.
- d) Epailleak edo magistratuak horretarako emandako auto baten bidez amaituko da.

16 – Fermin Puertollanoko Erregistro Zibileko arduraduna da, eta zalantza sendoak dauzka Peterrek Espainiako nazionalitatea bizilekuagatik eskuratzeko eskaeran aurkeztutako dokumentuen legezkotasunari buruz. Egin al dezake zer edo zer Ferminek?

- a) Bai. Erregistro Zibilaren Bulegoko arduradunak zalantza sendoak baditu dokumentuen legezkotasunari, egitateen egiazkotasunari edo adierazpenen zehaztasunari buruz, beharrezko diren egiaztapenak egingo ditu, inskripzioa egin baino lehen, eta hamar eguneko epean.
- b) Bai. Erregistro Zibilaren Bulegoko arduradunak zalantza sendoak baditu dokumentuen legezkotasunari, egitateen egiazkotasunari edo adierazpenen zehaztasunari buruz, beharrezko diren egiaztapenak egingo ditu, inskripzioa egin baino lehen, eta hogeia eguneko epean.
- c) Bai. Erregistro Zibilaren Bulegoko arduradunak zalantza sendoak baditu dokumentuen legezkotasunari, egitateen egiazkotasunari edo adierazpenen zehaztasunari buruz, beharrezko diren egiaztapenak egingo ditu, inskripzioa egin baino lehen, eta hogeita hamar eguneko epean.
- d) Bai. Erregistro Zibilaren Bulegoko arduradunak zalantza sendoak baditu dokumentuen legezkotasunari, egitateen egiazkotasunari edo adierazpenen zehaztasunari buruz, beharrezko diren egiaztapenak egingo ditu, inskripzioa egin baino lehen, eta hilabeteko epean.

17 – Zeltiaren abokatu-bulegora joan da Xuan, jakin nahi baitu zer epe dagoen obra anonimoen edo izenordedunen jabetza intelektualaren arloko eskubideak ustiatzeko. Zer erantzun dio Zeltiak?

- a) Obra anonimo edo izenordedunen ustiapen-eskubideek hogeita bost urte iraungo dute, obrak zilegi den moduan jendarteratu zirenetik hasita.
- b) Obra anonimo edo izenordedunen ustiapen-eskubideek hogeita hamar urte iraungo dute, obrak zilegi den moduan jendarteratu zirenetik hasita.
- c) Obra anonimo edo izenordedunen ustiapen-eskubideek berrogeita hamar urte iraungo dute, obrak zilegi den moduan jendarteratu zirenetik hasita.

d) Obra anonimo edo izenordedunen ustiapen-eskubideek hirurogeita hamar urte iraungo dute, obrak zilegi den moduan jendarteratu zirenetik hasita.

18 – Alejo txahal baten jabea da, baina Carminak uste du bera dela txahal horren jabe legitimoa. Zer akzio zibil baliatu dezake Carminak, txahala itzultzea lortzeko, baldin eta uste badu Alejok behar ez bezala eta inolako eskubiderik gabe duela jabetzan?

- a) Erreibindikazio-akzioa.
- b) Akzio inhibitoria.
- c) Senipartea deklaratzeko akzioa.
- d) “In bonum et aequum conceptae” akzioa.

19 – Cadizko Lehen Auzialdiko 5. Epaitegiko magistratuak autoa eman du, prozedura arrunt batean, auzigaiar arduratzeari uko eginez eskumenik ezagatik, auzigaia beste jurisdikzio-ordena bateko auzitegikoa baita. Zer errekurtsorik jar daiteke ebazpen horren aurka?

- a) Berraztertze-errekurtsua.
- b) Apelazio-errekurtsua.
- c) Kasazio-errekurtsua.
- d) Ezin da inolako errekurtsorik jarri ebazpen horren aurka.

20 – Fidel Sofiaren abokatua da, eta atzerriko zuzenbidea dagoela alegatu nahi du familia-prozedura batean. Zer frogatu behar du Fidelek?

- a) Atzerriko zuzenbidea edukiari dagokionez soilik frogatu behar da, baina ez indarraldiari dagokionez, eta zuzenbide hori aplikatzeko, auzitegiak behar beste ikerketa-bide erabil ditzake.
- b) Atzerriko zuzenbidea indarraldiari dagokionez soilik frogatu behar da, baina ez edukiari dagokionez, eta zuzenbide hori aplikatzeko, auzitegiak behar beste ikerketa-bide erabil ditzake.
- c) Atzerriko zuzenbidea edukiari eta indarraldiari dagokienez frogatu behar da, eta zuzenbide hori aplikatzeko, auzitegiak behar beste ikerketa-bide erabil ditzake.
- d) Atzerriko zuzenbidea ez da inoiz frogatu behar.

21 – Amaia enpresa baten administratzaile bakarra da, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu nahi du enpresa. Zer sistema erabiliko da erregistroa eramateko?

- a) Kontabilitate-eskuratze formalaren sistemaren bidez eramango da Merkataritza Erregistroa.
- b) Kontuak gordailutzeko denbora-lehentasunaren sistemaren bidez eramango da Merkataritza Erregistroa.
- c) Administratzailearen izendapena ondoz ondo inskribatzeko sistema unibertsalaren bidez eramango da Merkataritza Erregistroa.
- d) Orri pertsonalaren sistemaren bidez eramango da Merkataritza Erregistroa.

22 – Juan kaudimengabezia-egoeran dago, eta diru-kopuru handi bat zor die Ignacio, Stella eta Jesus hartzekodunei. Nork du konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa?

- a) Arau orokor gisa, zordunak eta hartzekodunetako edozeinek dute legitimazioa konkurtso-deklarazioa eskatzeko.
- b) Arau orokor gisa, zordunak baino ez du legitimazioa konkurtso-deklarazioa eskatzeko.
- c) Arau orokor gisa, hartzekodunek baino ez dute legitimazioa konkurtso-deklarazioa eskatzeko.
- d) Arau orokor gisa, pertsona fisiko edo juridiko guztiek dute legitimazioa konkurtso-deklarazioa eskatzeko, eskaeran interes legitimoa izan zein ez.

23 – Faustino Angelinesen bulego profesionalera joan da aholkularitza juridikoa eskatzera; izan ere, familiaren finka bere arreba Agustinari eman nahi dio dohaintzan. Ba al dago horretarako legezko betekizunik?

- a) Gauza higiezinaren dohaintza baliozkoa izan dadin, dohaintza hori eskritura publikoan egin behar da; eskritura horretan adierazi behar dira, banan-banan, dohaintzapeko ondasunak eta dohaintza-hartzaileak bete behar dituen zamen balioa.
- b) Gauza higiezinaren dohaintza baliozkoa izan dadin, dohaintza hori dokumentu pribatuan egin behar da; dokumentu horretan adierazi behar dira, banan-banan, dohaintzapeko ondasunak eta dohaintza-hartzaileak bete behar dituen zamen balioa.
- c) Gauza higiezinaren dohaintza baliozkoa izan dadin, finka dagoen tokiko bake-epaitegian egin behar da dohaintza hori, eta epailearen aurrean adierazi behar dira dohaintzapeko ondasunak eta dohaintza-hartzaileak bete behar dituen zamen balioa.
- d) Gure ordenamendu juridikoak ez du inolako legezko betekizunik ezartzen ondasun higiezinaren dohaintza egiteko.

Foru-zuzenbide zibilei buruzko galderak

24 – Beatriu Huescan jaio zen, Gasteizen bizi da eta Kataluniako auzotasun zibila dauka; Qiang adingabea adoptatu du. Zer auzotasun zibil eskuratuko du Qiangek adopzioaren ondorioz?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko auzotasun zibila.
- b) Aragoiko auzotasun zibila.
- c) **Kataluniako auzotasun zibila.**
- d) Auzotasun zibilik ez duenez, adoptatuak auzotasun zibil erkidea eskuratuko du.

25 – Aukeratu galdera, hautatu duzun foru-zuzenbidearen arabera:

A – Zuzenbide zibil erkidea:

25 – Amandak eta Rosak auzotasun zibil erkidea dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) Ezkontzako itunik izan ezean, edo horiek eragingabeak direnean, ezkongaien arteko araubidea zozketa bidez ezarritakoa izango da.
- b) Ezkontzako itunik izan ezean, edo horiek eragingabeak direnean, partaidetza-araubidea aplikatuko da.
- c) Ezkontzako itunik izan ezean, edo horiek eragingabeak direnean, ondasun-bananketaren araubidea aplikatuko da.
- d) **Ezkontzako itunik izan ezean, edo horiek eragingabeak direnean, araubidea irabazpidezko sozietatearena izango da.**

B - Aragoiko zuzenbide zibila:

25 – Chaimek eta Guiralek Aragoiko auzotasun zibila dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) Ezkontzaren araubide ekonomikoa itunetan adostu ezean, zuzenbide zibil erkidearen araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.

- b) Ezkontzaren araubide ekonomikoa itunetan adostu ezean, edo haiek osatzeko –bakoitzaren izaerak ahalbidetzen duen heinean–, partaidetza-araubidearen arauak beteko dira.
- c) Ezkontzaren araubide ekonomikoa itunetan adostu ezean, edo haiek osatzeko –bakoitzaren izaerak ahalbidetzen duen heinean–, ondasun-bananketaren arauak beteko dira.
- d) Ezkontzaren araubide ekonomikoa itunetan adostu ezean, edo haiek osatzeko –bakoitzaren izaerak ahalbidetzen duen heinean–, ezkontza-partzuergoaren arauak beteko dira.

C - Balearretako zuzenbide zibila:

25 – Apoloniak eta Annak Balear Uharteetako auzotasun zibila dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) «Espòlits» izan ezean, zuzenbide zibil erkidearen araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.
- b) «Espòlits» izan ezean, partaidetza-araubidea aplikatuko zaio ezkontzari. Haren bidez, ezkontide bakoitzari aitortzen zaizkio ondasun propioen gaineko jabaria, gozamina, administrazioa eta xedapena, eta ezkontidearen irabazietan hartzen du parte.
- c) «Espòlits» izan ezean, ondasun-bananketaren araubidea aplikatuko zaio ezkontzari. Haren bidez, ezkontide bakoitzari aitortzen zaizkio ondasun propioen gaineko jabaria, gozamina, administrazioa eta xedapena.
- d) «Espòlits» izan ezean, irabazpidezko araubidea aplikatuko zaio ezkontzari. Haren bidez, ezkontide biei aitortzen zaizkie ondasun erkideen gaineko jabaria, gozamina, administrazioa eta xedapena.

D – Kataluniako zuzenbide zibila:

25 – Galak eta Ainak Kataluniako auzotasun zibil erkidea dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) Ezkontzako itunik izan ezean, edo kapituluak eragingabeak badira, zuzenbide zibil erkidearen araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.
- b) Ezkontzako itunik izan ezean, edo kapituluak eragingabeak badira, partaidetza-araubide ekonomikoa aplikatuko zaio ezkontzari.
- c) Ezkontzako itunik izan ezean, edo kapituluak eragingabeak badira, irabazpidezko araubide ekonomikoa aplikatuko zaio ezkontzari.
- d) Ezkontzako itunik izan ezean, edo kapituluak eragingabeak badira, ondasun-bananketaren araubide ekonomikoa aplikatuko zaio ezkontzari.

E – Galiziako zuzenbide zibila:

25 – Braisek eta Nunok Galiziako auzotasun zibila dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) Ezkontideek ezkontza-itunetan adostutakoa izango da ezkontzaren araubide ekonomikoa. Hitzarmenik ez badago, edo eragingabea bada, zuzenbide zibil erkidearen araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.
- b) Ezkontideek ezkontza-itunetan adostutakoa izango da ezkontzaren araubide ekonomikoa. Hitzarmenik ez badago, edo eragingabea bada, partaidetza-araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.
- c) Ezkontideek ezkontza-itunetan adostutakoa izango da ezkontzaren araubide ekonomikoa. Hitzarmenik ez badago, edo eragingabea bada, ondasun-bananketaren araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.
- d) Ezkontideek ezkontza-itunetan adostutakoa izango da ezkontzaren araubide ekonomikoa. Hitzarmenik ez badago, edo eragingabea bada, irabazpidezko araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.

F – Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide zibila (Bizkaia):

25 – Adartzak eta Iluntzek Euskal Autonomia Erkidegoko auzotasun zibila dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) Ezkontzako itunak egin ezean, edo egindakoak askiezak edo deusezak izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko legerian ezarritako arauak aplikatuko zaizkio ezkontzari.
- b) Ezkontzako itunak egin ezean, edo egindakoak askiezak edo deusezak izanez gero, Kode Zibilean partaidetza-araubideari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio ezkontzari.
- c) Ezkontzako itunak egin ezean, edo egindakoak askiezak edo deusezak izanez gero, Kode Zibilean ondasun-bananketari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio ezkontzari.
- d) Ezkontzako itunak egin ezean, edo egindakoak askiezak edo deusezak izanez gero, Kode Zibilean irabazpidezko sozietateari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio ezkontzari.

G – Nafarroako Zuzenbide Zibila:

25 – Javierrek eta Mikelek Nafarroako auzotasun zibila dute, eta ezkontzekoak dira. Ezkontza horretan, zer araubide ekonomiko aplikatuko zaie, auzotasun zibilaren arabera?

- a) Ezkontideek ezkontzaren araubide ekonomikoa ezkontza-itunetan adostu ezean, zuzenbide zibil erkidearen araubidea aplikatuko zaio ezkontzari.
- b) Ezkontideek ezkontzaren araubide ekonomikoa ezkontza-itunetan adostu ezean, partaidetza-araubideari helduko zaio, zeina Konpilazioko xedapenek arautuko baitute, haien artean berariaz itundu ez den orotan.
- c) Ezkontideek ezkontzaren araubide ekonomikoa ezkontza-itunetan adostu ezean, ondasun-bananketaren araubideari helduko zaio, zeina Konpilazioko xedapenek arautuko baitute, haien artean berariaz itundu ez den orotan.
- d) Ezkontideek ezkontzaren araubide ekonomikoa ezkontza-itunetan adostu ezean, konkista-araubideari helduko zaio, zeina Konpilazioko xedapenek arautuko baitute, haien artean berariaz itundu ez den orotan.

Erreserbako galderak

1 – Francisco alderdi exekutatuak izan da prozedura judizial batean, eta uste du epaitegiak ondasun bat bidegabe enbargatu diola, enbargaezina baita.

- a) Alderdi exekutatuak auzitegian salatu dezake deuseztasun hori, errekurtsio arruntak aurkeztuz, edo Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean agertuz, baldin eta betearazpenean pertsonatu ez bada eta pertsonatu nahi ez badu; auzitegiak ebatziko du salatutako deuseztasunari buruz.
- b) Alderdi exekutatuak auzitegian sala dezake deuseztasun hori, errekurtsio arruntak aurkeztuz bakarrik, eta auzitegiak ebatziko du salatutako deuseztasunari buruz, estatuaren abokatuari hura helarazi ondoren.
- c) Alderdi exekutatuak Fiskaltzaren aurrean salatu dezake deuseztasun hori, eta Fiskaltzak ebatziko du salatutako deuseztasunari buruz.
- d) Alderdi exekutatuak auzitegiaren aurrean sala dezake deuseztasun hori, errekurtsio arruntak aurkeztuz bakarrik, eta Justizia Administrazioaren letraduak ebatziko du salatutako deuseztasunari buruz.

2 – Anak 93 urte dauzka, eta alderdi izango da prozedura zibil batean. Egin al daitezke Anaren parte-hartzea berdintasun-baldintzetan bermatzeko behar diren egokitzapenak eta doikuntzak?

- a) Ez; izan ere, desgaitasuna duten pertsonen parte hartzen duten prozesuetan bakarrik egingo dira halako egokitzapen eta doikuntzak.
- b) Bai; izan ere, desgaitasuna duten pertsonen eta hala eskatzen duten adinekoen edo, nolana ere, laurogei urteko edo gehiagoko pertsonen parte hartzen duten prozesuetan egingo dira halako egokitzapen eta doikuntzak.
- c) Bai; izan ere, hemezortzi urtetik gorako pertsona guztiei bakarrik egingo zaizkie halako egokitzapen eta doikuntzak.
- d) Ez; izan ere, legez ezinezkoa da prozeduran parte hartzen duen inori egitea halako egokitzapen eta doikuntzak.